

**BERMEOKO UDALEKO TELEKOMUNIKAZIO ZERBITZUA
KONTRATATZEKO BALDINTZA TEKNIKOEN ORRIA.****1.- KONTRATUAREN XEDEA**

Bermeoko Udalari telekomunikazio zerbitzua ematea da kontratu honen helburu edo xedea. Zerbitzu honen barruan sartuko dira oinarrizko telefonia, telefonia mugikorra, telefonia mota bien uztarketa, internetera sarbidea, mezu laburren (MLZ) zerbitzua, terminal mugikorretatik multimedia mezuak (MMZ) eta lineen, terminal mugikorren, telefonogunearen eta ematen den zerbitzuari lotutako tresneriaren mantentze lanak.

Kontratu honen barruan sartzen dira osorik zerbitzu mota biak, zerbitzu hauen erakunde adjudikazioduna behartuta geratzen da, beraz, eurok ematera II eta III Eranskinetan agertzen diren kokapenetan.

Telefonia mugikorra gero eta hedatuagoa dagoenez eta sare finkoarekin gero eta uztartuago, telefonia mota bien uztarketa eskatu da lehiaketan, batez ere, tarifa aldetik begiratuta.

Terminal mugikorren eta emandako zerbitzuei lotutako telefonogunearen mantentze lana bete beharko du adjudikaziodunak, baita telefono lineena eta esleipen honen barruan sartzen diren terminal eta udal dependentziena ere. Arduratu beharko da baita, II. Eranskinean agertzen diren eraikinetan zuntz optiko bitartez elkartzen den sarea mantentzeaz.

Goian aipatutako zerbitzu bakoitzari buruzko zertzeladak emango dira orri hauetan, zehatzago eta zabalago.

2.- KONTRATATZEKO BALDINTZA OROKORRAK

Hornitutako tresneria ondo jartzeaz eta gero ondo ibiltzeaz arduratuko da kontratista, orri honetako baldintza zehatzek eta dagozkien arauk ezarritakoa betez.

Kontratatzen kontura izango da doiketak, instalazioak, segurtapenak, neurriak hartzeko ekipoak eta abarren garraioa. Honela, beharrezkoak diren material, zerbitzu eta ekipo guztiak instalatu, probatu eta martxan jartzeko behar den guztia sartu beharko du eskaintzan.

Era berean, eta orri honetako dagokion atalean esaten den moduan, kontratistak hobekuntzaren bat jasoko balu eskaintzan, horren betekizuna bere kontura joango litzateke.

2.- Hornidura eta instalazioa

Hornitze eta instalatze baldintzak honako hauek izango dira:

2.1.1.- Lanen koordinazioa eta kokapena

- Lehiaketa honen materiala Bermeoko Udalak adierazten dizkion lekuetan hornituko du.
- Bermeoko Udaleko teknikari arduradunak emango die adjudikaziodun enpresako langileei zentroetan sartzeko baimena.
- Baldintza teknikoan orri honetan eta lanak hasi aurretik Bermeoko Udalaren ordezkari baten eta adjudikaziodunak aukeratzen duen langilearen artean egin beharreko zuinketan adierazitakoa betez burutuko dira instalazioak eta gainerako lan guztiak.
- Bermeoko Udalak, jakinarazpena bidaliko dio lanak noiz hasi behar dituen esanez, kontratista hasi dadin behar izango dituen horniketak egiten.

2.1.2.- Barruko kableak jartzea

- Bermeoko Udalaren eta adjudikaziodunaren artean lanak hasi aurretik egin beharreko zuinketan ezarritako lekuetan jarriko dira ekipoak eta kableak.
- Jarriko diren kable guztiak euskarrietan ondo sartuta egongo dira, bai metalezko erretilueta, saretxodun erretilu edo kanaletetan, horma edo ekipo gainetan. Ez da onartuko inondik eta inora kableak behe-gainetik egotea. Kableak behar den moduan identifikatuta egon behar dira.
- Segurtasun eta osasun oinarritzko arauak betez egin behar dira lanak eta instalazioak lehengo garbitasun baldintzetan geratu beharko dira, gutxienez.

2.1.3.- Terminalen kuxtaren panelak eta kokapena

- Bermeoko Udalak zehazki hori agindu duelako izan ezik, **banatzaileak eta ekipamendu aktiboa**, udalak, bere eraikin bakoitzean dauzkan komunikazioetarako arasetan jarri beharko dituzte. Seinale banatzaileak Rack-rako 19"ko 3etik 5era Cat panelak izango dira, eta telefonogunearen sarrerak eta irteerak elkar konektatzeko erabiliko dira, baita sarearen amaiera puntuak elkartzeko ere.
- Elkar konektatzeko kaxek, terminalek edo sareren bukaera puntuek**, honako baldintza hauek bete beharko dituzte:
 - . Gaur egun martxan dagoen operadoreak elementu hauek izanez gero, elkar konektatzeko puntu berri horiek: Sarearen Amaiera Puntuak, Sare Transmisoreak eta kaxak, daudenen ondoan jarri beharko dira.
 - . SAP eta ST terminalen kaxa bat baino gehiago egonez gero, guztiak bildu beharko lirateke, elementu anizkoitzak bihurtuz.



Adjudikaziodunaren sare-amaiera elementu guztiak izango dituzte beraien ebakitze eta proba puntuak. Ipiniko ez balitu, adjudikaziodunaren kontura joango litzateke linea jartzea lehenen daukan terminal-kaxaraino edo dagokion telefonoguneraino.

2.2. Baliabideak

Eskainitako hornidura guztiak instalatzeko beharrezkoak liratekeen tresnak, aparatuak, neurtzeko ekipoak, segurtasun materiala, ibilgailuak, langileria aditua eta baita prestakuntza eta eskarmentu nahikoa izango du kontratistak.

2.3. Adjudikaziodunaren jarduera gainbegiratzea

Bermeoko Udaleko teknikariek zuzenduko dute lana. Eurek izango dira adjudikaziodunak hitzartutako konpromiso guztiak era egokian betetzen direla gainbegiratuko dutenak eta lanak koordinatuko dituztenak, bai aritze aldetik eta baita tekniko aldetik ere. Aldi berean, kontratistak arduradun bat aukeratuko du bere enpresa barruan.

Bermeoko Udaleko arduradunak eskudantzia handiak ditu eta berak agindutakoa edo esandakoa berehala bete beharko da.

Bermeoko Udalak kontrol arloan jarritako baldintza guztiak bete beharko ditu derrigorrez adjudikaziodunak. Zerbitzuen garapenari buruzko eztabaidak ordezkartzaren mailarik gorenean erabakiko dira.

Bermeoko Udalak, esleipena egin orduko edo indarrean dagoen bitartean edo gero, eta lanak dirauten bitartean ere, edozelako agiri mota osagarria eskatu litzaioke, adjudikaziodun enpresak emandako datuak berari buruz zein proposatzen dituen langileei buruz, benetakoak diren ala ez egiaztatzeko.

2.4. Segurtasuna eta osasuna

Lan Arriskuen Prebentzioari buruzko Plana (abenduaen 12ko 54/2003 Legeak aldatutako azaroaren 8ko 31/1995 LAP Legearen 16. art.) eginda eduki behar du adjudikaziodunak.

Azaroaren 8ko 31/1995 Legeak aurreikusitako prebentzioaren betekizun orokorra osotzen duten neurriak aplikatu beharko ditu enpresa adjudikaziodunak, aurre-hartze jardueraren oinarri orokorrek ezarritakoa kontuan izanda.

Enpresaburu nagusiak, lan arriskuen prebentzioari buruzko Legearen 24. artikulua xedatzen duen erara, aurre-hartze arloko araudia betetzen dela zaindu beharko du. Araudi hori enpresa kontratistek, obren azpikontratek edo enpresaburu horren lantokian garatzen den jarduerari dagozkion zerbitzuek bete beharko dituzte.



Zaindu beharraren inguruan, urriaren 30eko 17/2004 Errege Dekretuaren 10.2 artikulua ezarritako neurriak aplikatu beharko ditu, beraz, adjudikaziodun enpresak. Honakoa dio aipatutako artikulua horrek: *“Antes del inicio de la actividad en su centro de trabajo, el empresario principal exigirá a las empresas contratistas y subcontratistas que le acrediten por escrito que han realizado para las obras y servicios contratados, la evaluación de riesgos y la planificación de su actividad preventiva.”*(Bere lantokian jarduera hasi baino lehen enpresaburuak enpresa kontratistei zein azpikontratistei eskatuko die idatziz kreditatu dezatela kontratatutako obra eta zerbitzuetarako arriskuak ebaluatu dituztela eta prebentzio jarduera planifikatu dutela.) Eta 10.2 artikulua horretako bigarren paragrafoan honakoa xedatzen da: *“asimismo, el empresario exigirá a tales empresas que le acrediten por escrito de que han cumplido sus obligaciones en materia de información y formación respecto de los trabajadores que vayan a prestar sus servicios en el centro de trabajo.”*(halaber, enpresaburuak eskatuko die enpresa horiei idatziz kreditatu dezatela bere lantokian lan egingo duten langile guztiei eman beharreko informazio eta prestakuntza arloko betekizun guztiek burutu dituztela.

Zerbitzua ematen hasi orduko, adjudikaziodun enpresak lantokian lanean arituko diren langile guztien zerrenda aurkeztuko du, baita enpresa adjudikaziodunaren prebentzioko arduradun izendapena ere.

2.5. Sekretua eta konfidentzialtasuna

Bermeoko Udalak agindutako konfidentzialtasun eta bere zentroetara sartzeko kontrol arauak ezagutu eta betetzera behartuta egongo da kontratistaren langileria.

Kontratuaren beharrezanek eraginda, bere eskuetan erabili behar dituen Copyright, jabetza intelektuala eta sailkatutako edo hedabide mugatuko dokumentuei buruzko indarrean dauden arauak gordetzera behartuta egongo da kontratista.

Kontratuak horretarako aukera ematen diolako, ezagutzen dituen datuen konfidentzialtasun osoa gordetzera behartuta geratuko da adjudikazioduna, batez ere, datu pertsonalak direnean. Honako lege, dekretu eta erregelamenduek xedatutakoa ere bete beharko du nahita nahiez:

- . Abenduaren 13ko 15/1999 Datu Pertsonalen Babesari buruzko Lege Organikoa.
- . 2/2004 Legea, otsailaren 25ekoa, Datu Pertsonalen Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa sortzeari buruzkoa.
- . Datu Pertsonalak Babesteari buruzko Erregelamendua (Abenduaren 21eko 1720/2007 Errege Dekretua).
- . Ekainaren 20ko 1332/1994 Errege Dekretua, Lege Organikoaren agindua batzuketarako garatzen dituen.
- . Informazioa eta Merkataritza Elektronikoaren Elkartearen Zerbitzuen 34/2002 Legea.

2.6. Dokumentuak

Hemen adierazitako dokumentuen kopia oso bi aurkeztu behar dizkio adjudikaziodunak Bermeoko Udalari.



Kopia osotzat hartzen da, karpeta barruan paperean eta Office 3arekin bat datorren euskarri magnetikoan edota magneto-optikoan aurkezten dena.

Bai administrazioarekin eta bai erabiltzaileekin kontratistak izango dituen harreman guztiak euskaraz izango dira. Halaber, edozein seinale, errotulu, iragarki edo kalean zein udal eraikinetan jarri beharreko beste horrelakorik euskaraz egongo da.

Dena den, zehatz-mehatz bete beharko du Euskerearen Normalkuntzarako Udal Ordenantzea.

2.6.1. Dokumentuak mantentzea

Instalazio, ekipo, modulu, eta elementu laguntzaileei buruz Bermeoko Udalak daukan dokumentazio tekniko guztia helaraziko dio adjudikaziodunari.

Adjudikaziodunak, bere aldetik, jaso duen dokumentazio hori beti eduki beharko du eskura eta era egokian erabilgarri. Dokumentazioa Bermeoko Udalaren jabetzakoa da.

Dagoen dokumentazioa nahikoa izango ez balitz bere lana bete ahal izateko, adjudikaziodunak lortu beharko du Bermeoko Udalaren esku ez dagoen eta beharrezkoa litzatekeen dokumentazio guztia.

Bere esku jarritako plano, eskuliburu, zerbitzu-agiri eta instalazio guztientzako erregistro bat ezarriko du adjudikaziodunak eta eguneratuta edukiko du.

Konponketaren bat egin delako edota haren ordezkari beste bat jarri delako, eman zaion dokumentazio teknikoak ez badator bat gaur egun dauden ekipoekin, adjudikaziodunak errealak ez diren agiri horiek eguneratu egin beharko lituzke, hala, dokumentazio teknikoan benetako egoera islatuko da beti.

Kontratua amaitzen denean, adjudikaziodunak dokumentazio guztia itzuli beharko dio Bermeoko Udalari, bai eman zitzaion jatorrizkoa eta baita eguneratua ere.

3. KONTRATUAREN HEDADURA

Burutu beharreko lanen betekizunak, baldintza teknikoak eta euren hedadura azaltzen dira atal honetan.

3.1. Telefonía finkoaren zerbitzua

Bermeoko Udalean dagoen telefonía finkoaren zerbitzua, zentralizatutako IP telefonía sistema bat da, Alcatel OmniPCX Enterprise telefonogune bakarrak eta 30 kanaldun primario batek kudeatua. Sistema hau, alde batetik, Ertzilla kaleko 6-8 eraikinean zentralizatuta dagoen modu bakarreko zuntz optiko sare baten gainean inplementatuta dago et II. Eranskinean azaltzen diren zentroak elkartzen ditu. Beste aldetik, VPN (NetLan) bidea dauka III. Eranskinean agertzen diren zentroak elkartzeko. Hurrengo



ataletan zehazten dira linea finkoentzako kontratuaren hedaduraren oinarria izango diren ezaugarriak.

3.1.1. Zerbitzuen dimentsioa eta izaera

Jarraian azaltzen den taulan gaur egun dauden kanal guztiak eta euren kokapena agertzen da. Eskaintzen diren zerbitzuen dimentsio egokia erakustea da taula honen helburua. Orri honetan erakutsi nahi dira gaur egungo ahalmenak eta beharrianak, etorkizunean hedadura handiagoa izan dezaketena, hain zuzen ere.

Dauden lotuneen kokapena, kopurua eta izaera adierazten da taula honetan:

Eraikina	Izaera eta lotune kopurua	Dimentsioak
ATB saila eta Berh@z	Linea primario bat 30 kanal analogikorekin	Udalaren telefonia egitura guztiari ematen dio linea honek zerbitzua. 9 luzapen IP eta 4059 operadore-kontsola bi
Ekonomia, Urigintza, Zerbitzu eta Udaltzaingoa sailak	5 linea analogiko (larrialdiak eta 092 zerbitzua)	25 luzapen IP
Gizarte Ongizatea	Linea analogiko 1	19 luzapen IP
Udal azoka, Artxiboa eta Behargintza	3 linea analogiko	13 luzapen IP
Udaletxea	3 linea analogiko	20 luzapen IP
Joxe Miel Barandiaran Liburutegia	5 linea analogiko	7 luzapen IP
Kultura Etxea	3 linea analogiko	6 luzapen IP
Jose Antonio Egia Musika Eskola	2 linea analogiko	2 luzapen IP
BERUALA	2 linea analogiko	7 luzapen IP
Lanbide Hastapena	Linea analogiko 1	2 luzapen IP
Landabasoko biltegia		Luzapen IP 1
Sancti Spiritus Egoitza	3 linea analogiko	12 luzapen IP gateway media bidez
Kirol Patronatua	6 linea analogiko	6 luzapen IP
Bake Epaitegia	Linea analogiko 1	5 luzapen IP
San Frantzisko Herri Eskola	2 linea analogiko	
Jose Done	2 linea analogiko	



Ikastetxea		
Villa Eustasia		
Erreten Lamera		
Haur Eskola		

Taula hau ez da loteslea, orientagarria baizik, gutxieneko ahalmen batzuk finkatzen ditu.

3.1.2. Zenbakiaren barrutia eta berariazko baldintzak

3.1.1. ataleko taulan agertzen diren eraikin guztietan, bete beharreko gutxieneko baldintza modura gordeko dira gaur egun dauden zenbakiak. Eskaintza dimentsionatu eta baloratzeko asmoarekin funtzionamenduan dauden telefono zenbakiaren kopuru osoa azaltzen da eta kokapen hauetarako gordeta daudenak.

- . 94 617 9112tik 9191ra, 94 617 0200 eta 94 617 9100 barrutiko 92 telefono zenbaki.
- . 010 eta 092 zerbitzuak.
- . Barrutitik kanpoko 39 telefono zenbaki.
- . 73 linea mugikor.

Zenbaki hauek ZISD primarioei lotuta daude baita zerbitzua ematen den kokapen guztien artean banandutako linea analogikoei ere (II. eta III. Eranskinak).

3.2. Telefonia mugikor zerbitzua

73 linea mugikor dauzka egun Bermeoko Udalak, baina, kontuan eduki beharko da linea mugikorrak gehitzeko dagoen joera.

Multimedia mezuak eta erabiltzaile batzuen Internet erabilera, zein baita dei zehatz batzuk egitea murrizteko (erabiltzailearen zenbakiaren araberako murrizketa) mekanismo bat izan beharko duela.

Eskaintako telefonia mugikorraren sistemako ezaugarri nagusi, orokor eta globalak erantsi beharko dira; egonez gero edo eskatzen badira, telefonia finkoarekin bat egiteko elementuak edo, finkotik mugikorrerako deien kostea gutxitzeko ahalmena erakutsirik.

Udalaren interesa kontuan izanda zerbitzu bereziak izan behar dituzten mugikorretan zerbitzu horiek gaituko dira (mezu laburrak bidaltzeko zerbitzua, GPRS zerbitzua, Interneta, posta elektronikoa, etab.).

3.3. Banda Zabaleko Internetera sarbidea

19 sarbide dauzka gaur egun Bermeoko Udalak Internetera, ezaugarri eta erabilera desberdinekin, hain zuzen ere. Hauetarik seik Sare Pribatu Birtuala (NetLan) osatzen dute, udalaren telefonia finkoaren zati bat horrengan inplementatuta dagoena. Udalak



kontratatu beharreko gutxieneko konexioen ezaugarriak VI. Eranskinean zehazten dira.

Eskaintzen den zerbitzuak Internetera sarbidea baino ez du behar, ez dira behar izango antibirus, Firewalling zein Hotmail edo horrelako posta elektronikoko konturik ez hosting web-ik.

3.4. Mantentze zerbitzua

Oinarrizko baldintza batzuk bete beharko ditu mantentze zerbitzuak:

. Matxurak konpontzeko ordutegia: gutxieneko ordutegia astelehenetik igandera, 24 orduetan. 24 x 7 zerbitzua, erantzuteko sasoia lau orduetik beherakoa izan beharko da.

. Halakoak edo horrelakoak izan, baina beti kontratuaren barruan dauden gorabehera guztietarako solaskide bakarra eduki beharko da, gutxienez, telefonoz, posta elektronikoko bidez zein web bidez.

Eskaintako mantentze zerbitzuak elementu hauek bete beharko ditu:

. Eskaintako telefonia mugikor parkea: Adjudikaziodunak eskaintako telefonia mugikor parke guztia hartuko du. Terminal mugikorraren ordeztatu bestea bat jartzeko epea 48 ordukoa izango da eta matxuratutako, lapurtutako edota galdutako terminalak konpondu edo euren ordeztatu bestea batzuk jartzea edo SIM txartelak ordeztatu edo blokeatzea sartuko da eskaintza barruan, Bermeoko Udalak horrela eskatzen badio lapurreta edo galtze kasuetan.

. Adjudikaziodunak eskaintako komunikazio linea eta esteka guztiak mantenduko ditu.

. Internetera sartzeak eragindako gorabehera guztiak kudeatu eta sarbide kodeak kudeatzeko aukera.

. Zaharren egoitzan jarritako Gateway Mediaren Alcatel OmniPCX Enterprise (OXE 6,2) telefonogunearen hardware eta softwarea bertan edo urrundik mantentzea. Berdin, Alcatel OmniSwitch 6800/24 eta OmniStack 6300/24 sarearen elektronika guztia, baita, zentroetan jarrita dauden Alcatel IPTouch 4018aren 150 terminalak. Hemen aipatu diren elementuen ezaugarriak IV. Eranskinean zehazten dira. Era berean, zerbitzuaren eguneroko eginkizunei lotutako konfigurazio aldaketak ere egingo ditu.

3.5. Eskaini beharreko hobekuntzak

Eskaintzen dituen hobekuntzak gauzatzera behartuta egongo da adjudikazioduna, baldintza-orri honetako dagokion atalean ematen den puntuaketari lotuta egongo da eta.



Bermeoko Udalaren beharrianak kontuan izanda, lizitatzailerak eskaini ditzakeen hobekuntzak adierazten dira ondoren. Baldintza-orri hauetan agertzen diren esleipen irizpideen arabera baloratuko dira.

3.5.1. Udalaren telefonogunea gaurkotzea

Bermeoko Udalari interesgarria deritza telefonogunea gaurkotzea, horregatik, adjudikaziodunak zehatz-mehatz azaldu beharko du bere eskaintzan sartuko bada:

Bermeoko Udalari zerbitzua ematen dion Alcatel Omni PCX Enterprise komunikazioen zerbitzariaren OXE Release 6.1 sistema gaurkotzea, haren ordean, 9.1 bertsio gaurkotua jarritz, beste gauza batzuen artean, SIP edo VoIP teknologiarantz euskarria sartuko duela suposatzen delako.

IParen bidez sare publikorako estekak erabiltzea utziko dion trunking SIP bezalako zerbitzu gehigarriak sartzeko bidea emango dio gaurkotze horrek. Edo zerbitzu berriak sartuz komunikazioetan hobekuntza bat izateko aukera ematen duten komunikazio bateratuak eta elkarlanerako bide zehatzak hartzeko presentzia kontrola bideratuko du.

SIP elementuak sartzea be erraztu beharko du telefonogunearen zerbitzu propio modura: audiokonferentzia eta bideokonferentzia sistemak, atezain automatikoak, alambre gabeko VoWLAN terminalak, etab.

Gehigarri modura, Release 9.1rako migrazio bidez, belaunaldi berriko plakekin bateragarria izango da eta ahalmenetan hobekuntzak izango ditu eta erantzun hobea intzidentzia tekniko kasuetan. Hitz baten esanda, azken belaunaldiko komunikaziorako zerbitzaria edukitzea suposatuko du.

ALCALTEL OMNIPCX ENTERPRISE (OXE) INSTALAZIOA GAURKOTZEA RELEASE 9.1 EKIPAMENDUA ADJUDIKAZIODUNAK JARRIZ

- . R. 9.1arentzat gaurkotze handiagoa egiteko lizentzia.
- . SDRAM 256 Call Server-entzat.
- . OXE MLZ-arentzat Software-aren mantentze zerbitzua.
- . Instalazioa eta konfigurazioa guztiz amaituta, era egokian funtzionatzeko beharrezkoak liratekeen kable gehigarriak jarritz.

3.5.2. Zuntz optikoa zabaltzea. Obra zibila eta kableak

Bermeoko Udalaren beharrianak betetzeari begira, beste hobekuntza handi bat udalaren sare propio baten bidez zuntz optikoarekin udal eraikinak elkartzen jarraitzea da.

Horretarako, lizitatzailerak ezarri beharko du era zehatzean, zuntz optikoaren zabalkuntzarako telefoniaren kanalizazio luzera zein izango den, V. Eranskinean



agertzen diren planoak kontuan izanda. Hobekuntza hau eskaintzerik nahi ez badu, 0,00 metro jarri beharko du Eranskin horretan.

Halaber, egiteko prest dagoen zuntz optikoaren zabalkuntza baloratuko da, V. Eranskinean agertzen diren planoak kontuan izanda.

4. BALDINTZA TEKNIKO OROKORRAK

Kontratu honen xede diren ezaugarri tekniko orokorrak azaltzen dira ondoren. Ezaugarri hauek derrigorrez bete beharrekoak izango dira adjudikaziodunentzat.

4.1. Beharrezkoak diren egokitzapenak kudeatzea

Eskatzen diren zehaztasunetara bere sistema egokitzeko lizitatzailleak jarri beharko lituzkeen horniduraren xede den ekipamenduaren garapen eta egokitzapen guztiak sartu beharko dira orri honetan finkatutako prezio eta epeetan.

Sistema guztia era egokian funtzionatzeko orri honetan ezarritakoaz gain, Software gehigarria kargatzea beharrezkoa izanez gero, eskaintza egiten duenaren lana izango da programak erostea eta instalatzea, baita erabilera-lizentziak ere, kopuru nahikoan.

4.2. Solaskidetza puntu bakarra

Lizitatzailleek aurkeztutako eskaintzetarako ezinbesteko baldintza modura ezartzen da solaskidetzarako puntu bakarra izatea Bermeoko Udalaren eta adjudikaziodunaren artean arlo tekniko eta merkataritzakoentzat.

Solaskidetza tekniko bat egongo dela ulertzen da (mantentze lanak, instalazioak, intzidentziak, ...) eta beste solaskidetza bat merkataritza gaietarako (zerbitzuak kontratatzea, fakturazioak, sustapenak, ...).

4.3 Oraingo zenbakiak mantentzea

Lehiaketa honen barruan sartzen diren eraikinetan eta baita telefonia mugikorrean ere gaur egun dauden zenbakiak mantendu nahi dituzenez euren osotasunean Bermeoko Udalak, eta beharrezkoa balitz eramangarritasuna erabiltzea, Telekomunikazioen azaroaren 3ko 32/2003 Lege Orokorrak ezartzen duena eduki beharko da kontuan, baita lege hori garatzen duen indarreko legedia, eta Telekomunikazioen Merkatuko Batzordeak hartutako erabakiak eta adierazitako gomendioak.

Adjudikaziodunak idatziz agertuko du bere konpromisoa gordeko duela eta Bermeoko Udalaren esku utzi "Telefono zenbakiaren eramangarritasuna" zerbitzua, honako araudi honetan ezarritako baldintzetan.

4.4. Zerbitzuaren kalitatea



Kontratatutak, lizitazioaren atal modura aurkeztuko ditu izaera loteslearekin, zerbitzuaren kalitateari buruz eskaintako baldintzak. Faktore hauetan islatuko da bereziki:

- . Kontratatutako zerbitzuek erabilgarri ez dauden epe portzentajerik handiena urte barruan (lineak, telefono zirkuituak eta internetera sarbideak)
- . Urte barruan zerbitzuan programatuta ez dauden ebaketa kopururik handiena.
- . Urte barruan onartuta dauden programatutako ebaketa kopururik handiena ezarri beharko da.

Era berean, bere fakturazioan aplikagarriak liratekeen zigorrak, zerbitzuaren urteko fakturazioan izango lukeen portzentaje modura adieraziz, zerbitzurik eman ezin den bakoitzeko urteko portzentajezko hamarrena, programatu eta ez programatutako ebaketa kopurua, etab.

4.5. Inbertsioa mantentzea eta Telefonía finkoan egun dagoen sarearen funtzionaltasuna

Bermeoko Udalak izar eratako sare bat dauka zuntz optikoarekin eraikin hauek elkartzen dituen: Udaletxea, Intxausti kaleko bulego eraikina, Ongizate Patronatua, Beruala, Musika Eskola, Udal Liburutegia, Udal Azoka, Kultura Etxea eta Berh@z.

3.1.1. atalean zehaztu dira lineak.

Bermeoko Udalaren asmoa da gainerako udal eraikin guztiak elkartzen joatea goian azaldutako zuntz optikoko sarera. Izan ere, Lanbide Hastapenaren eraikina sartuko da sarean laster.

Helburu horrekin, kontratu hau esleitzeko baloratuko den irizpideetako bat, hobekuntza atalean, helburu hori lortzeko bideratutako lanak burutzeko eskaintza izango da, orri honetan agertzen den moduan.

4.6. Aurrezenbakiak markatu beharreko telekomunikazio zerbitzuen erabilera

Telekomunikazioen merkatuko gaur egungo egoerak kontuan izanda, eta operadoreetan aurre-aukeratze prozesuak normaldu eta gero, kontratu honen xede diren zerbitzuetara iristeko azken erabiltzaileak aurrezenbakiak eskuz markatu beharreko irtenbideak zaharkituak irizten digute, baita kanpoko bideratzaileak erabiltzen dituztenak ere.

Beraz, azken erabiltzaileak aurrezenbakirik markatu beharrik ez izatea eskatzen da.

5. ESKAINTZA EKONOMIKOA

Eskaintza ekonomikoak izan behar dituen ezaugarriak azaltzen dira atal honetan.



5.1. Prezioen deskribapena

Lizitatzailleek derrigorrez agertu beharko dute beraien eskaintza ekonomikoan baloraziorako irizpideen atalean ezarritako prezio zein diru-kopuruak. Atal horretan tabulaturako elementuei dagozkien unitateko prezioak ere agertu beharko dira:

.Unitateko prezio hauek ez jartzeko salbuespen bakarra zerbitzua zaharkituta egotea izan litzake eta haren ordeztu beste bat jarri beharra. Kasu honetan zerbitzu, mantentze zein ordeztuaren altaren unitate-kopurua aplikatuko litzateke.

. Eskaintza ekonomikoan sartzen ez diren unitateko zenbateko guztiak, balorazio irizpideetan sartzekoak direnean, 0 puntu hartuko dute dagokien baloratzeko atal edo azpiatalean.

5.2. Prezioen baliogarritasuna

Kontratuak irauten duen bitartean prezioak KPIa kontuan hartuta berrikusiko dira, Sektore Publikoko Kontratuen urriaren 30eko 30/2007 Legearen 78.3 artikulua ezarritakoaren arabera.

6. FAKTURAZIOA

Hilero egingo da fakturazioa eta hileko epe-mugan. Faktura bakarra aurkeztuko da.

Bermeoko Udalera paper euskarrian bidalitako fakturaz egingo da fakturazioa, nahiz eta Internet bidez kontsultatzeko aukera ere egotea eskatzen den. Linea bidezko atzaldi hori babestuta egongo da behar diren neurriekin, konfidentziasuna segurtatuta egon dadin.

Era beran, Internetetik ere ateratzeko aukera izan beharko du fakturazio horrek edo euskarri magnetikoan edo magneto-topikoan bidalia, mugatutako testudun fitxategiekin bateragarria den formatuan. Fakturazioa kontsultatzeko softwarea izanez gero, adierazi egin beharko da, lehen bidalketan behintzat, eta idatziz, bidalitako taulen eremu-egitura zein den eta euren erlazio logikoa, horrela, Bermeoko Udalak automatizatu ahal izateko informazio horren inportazioa.

6.1. Fakturazioaren zehaztapena

Orri honetan ezartzen den moduan, telekomunikazioarekin zerikusia duten gastu guztiak bilduko dituen hileroko diru-kopuru bat finkatuko bada ere, fakturazioa zehaztua izango da, jarraian azalduko dugun moduan.

Fakturazioan argi adieraziko da trafiko telefonikoa, terminal finko zein mugikorretatik egindako dei guztiak agerturik eta faktura orokorraren barruan sartuko da lineaka zehaztuta.



Mezu Laburren Zerbitzuaren (SMS) eta multimediatiko (MMZ) mezuen zehaztasunak ere faktura orokorraren barruan sartuko dira baina linea bakoitzeko mezuen zehaztapena egingo da.

(GPRS/EDGE/HSDPA/HSUPA/HSPA+...) terminal mugikorretako datu trafikoen fakturazioa, faktura orokorrean sartuko da, baina atal bereizi batean. Linea bakoitzean deskargatutako Kylobyten trafikoaren bolumena zehaztuko da.

Dena den, fakturazio erak, bere zertzeladak eta honek bildutako datuak, trafikoa, eta abarrek, Bermeoko Udalaren onespina jaso beharko du, udalak onartu arte beharrezkoak liratekeen fakturazio eredu ezberdinak proposatuz kontratistak, beti ere, ahalik eta zehatzenak eta gardenenak izaten ahaleginduz.

7. LIZITAZIO MOTA

Kontratu honen lizitazio mota 408.000,00 €koa da, eta urteko zenbatekorik handiena 102.000,000 €koa.

BEZari dagokion zenbatekoa 73.440,00 €koa da, eta zergak sartuta, denera, 481.440,00 €koa.

8. KONTRATUAREN BALIO-EPEA

BI urteko balio-epea izango du kontratuak, funtzionamenduan hasten denetik, beste urte bi luzatu daiteke, urtez urte.

9. KONTRATUAREN AMAIERA

Kontratua automatikoki amaituta geratuko da kontratatu den epea amaitzean eta ezin izango da luzatu gehiago.

10. FUNTZIONAMENDUAN JARTZEKO EPEA

Zerbitzua martxan jartzeko epea ezin izango da 60 egun baino luzeagoa izan, esleipena egiten den egunetik hasita. Lizitatzailerak konpromisoa hartuko du azaroaren 3ko Telekomunikazioen 32/2003 Lege Orokorrak ezarritako gehieneko epeak beteko dituen, baita Telekomunikazioen Merkatuko Batzordeak jarritako agindu eta gomendioak eta indarreko araudiak ezarritakoa.

II.- ESLEIPENA EGITEKO BALORAZIO IRIZPIDEAK

Baloratze irizpideak kontzeptu hauetan banatzen dira:



- . Hileko kuota finkoa (tarifa finkoa) 60 puntu
- . Alta-kuotak eta unitate-prezioak 15 puntu
- Eskaintzen diren hobekuntzak
- . Zuntz Optikoaren zabalkuntza 20 puntu
- . Telefonogunea gaurkotzea 5 puntu

II.1. Prezioen eskaintza. 75 puntu

II.1.1. Hileko kuota finkoa (tarifa finkoa). 60 puntu.

Hileko kuota finkoa edo Tarifa Finkoa ezartzen da **8.500,00** eurotan. Hemen sartzen dira eskaini beharreko telekomunikazio zerbitzutik eratorritako gastu guztiak, kuota finkoak, trafikoa, mantentzea, etab.

Lehen eranskinean ematen dira azken bi urteetan izandako kontsumoaren datu zehatzak, kuota hori finkatzeko baliagarriak izango zaizkie lizitatzaillei azterpen baten oinarri modura.

Hileko Kuota Finko horrek hartzen dituen gehieneko kontsumoak 2010eko ekainari dagozkionak dira, kontsumorik handiena eduki zuen hilabetea izan zelako.

Balore hauen gainetik, eskaintzan finkatutako unitate prezioen arabera fakturatuko da, hurrengo ataleko tauletan ezarritakoa kontuan izanda.

Egin beharreko eskaintza:

Eskaintzen duten Hileko Kuota Finkoa zein den adieraziko dute lizitatzailleek, baina inoiz ezin liteke izan atal honetan finkatutakoa baino handiagoa.

Puntuazioa:

Atal honetan, Hileko Kuota Finkorik merkeenak izango du punturik gehien, 60 puntu, hain zuzen ere. Gainerakoek, egindako merkeenaren proportzioan hartuko dituzte euren puntuak.

II.1.2. Alta-kuotentzako puntuen kalkulua. 2 puntu.

Jarraian azalduko den taulan islatuko dira kalkulu azpikategoriak eta bakoitzari ezarritako puntuak. Taulako zerbitzuetan alta emateari dagozkion unitate-prezioak eskaini beharko ditu lizitatzailleak.

Atal bakoitzaren barruan esleituko zaizkio gehieneko puntuak unitateko prezioa 0 eurotan eskaintzen duen lizitatzaileri, eta, ostera, 0 puntu emango zaizkio garestien eskaintzen duenari, beste lizitatzaille guztiek, eskaintzaren araberrako puntuak jasoko dituzte.



Alta kuotak: zerbitzuak, lineak, terminalak eta gailuak. Behin lepora daitezken arrazoiak	2,00
Telefonia FINKOA	1,00
Alta linea analogikoan	
Alta oinarritzko linearen aurre-esleipenean	
Alta oinarritzko ZISDera sarbidean	
Alta ZISD primarioarako sarbidean 30 kanalentzat	
Alta ZISD primario zatikatura sarbidean (30 kanal baino gutxiago)	
Alta zenbaki gehigarrian (ZISDean sartzeko)	
Alta Oinarritzko linearako Ahots-Postontzi Zerbitzuan	
Alta Jauzi Taldean	
Zebakiak gordetzea: zenbaki 1	
Alta Goiburu Talde zabalduan	
Alta Goiburu Taldean (sarbide digitala)	
Alta Zenbakiaren identifikazioan (bidalitako deiak)	
Alta OTSetik Internterako sarbide konmutatuan	
Alta ZISDetik Interneterako sarbide konmutatuan	
Telefonia Mugikorra	1,00
Alta linean	
Terminal mugikorra lagatzea	
Alta linea mugikorreko ahots-postontzian	
Alta linea mugikorreko deiaren identifikazioan	
Alta ECHO txartelean	
Alta roaming zerbitzuan	
Alta Internetera sartzeko zerbitzuan (GPRS/EDGE/UMTS/HSDPA/HSUPA/HSPA+...)	
Alta zerbitzu pertsonal mugikorrean (terminal eta linea berbera erabilera perstonala izateko)	
Alta FAX transmisio zerbitzuan	
Alta MMZal bidaltzeko zerbitzuan	
Alta bideokonferentzia zerbitzuan	

11.1.3. Hileko kuotentzako puntuen kalkulua. 3 puntu

Jarraian azalduko den taulan islatuko dira kalkulu azpikategoriak eta bakoitzari ezarritako puntuak. Mantentze, egokitze eta taulan azaltzen diren epeetarako tarifatura ez dauden zerbitzuei dagozkien unitate-prezioak eskaini beharko ditu lizitatuak.

Atal bakoitzaren barruan esleituko zaizkio gehieneko puntuak unitateko prezioa 0 eurotan eskaintzen duen lizitatuari, eta, ostera, 0 puntu emango zaizkio garestien eskaintzen duenari, beste lizitatu guztiek, eskaintzaren arabera puntuak jasoko dituzte.



Hileko kuotak (mantentzeak, egokitzapenak eta epeka tarifatu ez diran zerbitzuak)	3,00
Telefonia FINKOA	
Mantentzeak (hileko kostua)	
Oinarrizko Linea (sarbide analogikoa)	
Oinarrizko Linea aurre-esleitua	
Oinarrizko ZISD sarbidea	
ZISD sarbide primarioa 30 kanalduna	
ZISD sarbide primario zatikatua (30 kanal baino gutxiago)	
Zenbaki gehigarria (ZISD sarbidearentzako)	
Oinarrizko linearako Ahots-Postontzi Zerbitzua	
Jauzi Taldea	
Zenbakiak gordetzea: zenbaki 1	
Goiburu Talde zabaldua	
Goiburu Taldea (sarbide digitala)	
Zenbakien identifikazioa (bidalitako deiak)	
OTSetik Interneterako sarbide konmutatua	
ZISDetik Internetarako sarbide konmtatua	
MD-110 (MX-ONE) telefonogunearen ataka (ataka analogikoa, digitala zein IP)	
Alcatel OXE telefonogunearen ataka (ataka analogiko, digitala zein IP)	
Zerbitzuak eta egokitzapenak	
Migrazio sarbidea zenbakia mantenduz	
Migrazio sarbidea zenbakia mantendu gabe	
Zenbakiaren eramangarritasuna beste operadore batetik	
Egoitza aldaketa zenbakia mantenduz	
Egoitza aldea zenbakia mantendu gabe	
Oinarrizko STa ordezte	
ST Primarioa ordezte	
SAP anizkoitza ordezte	
Telefonia Mugikorra	
Mantentzeak (hileko kostua)	
Linea Mugikorra	
Terminal mugikorra	
Linea mugikorraren ahots-postontzia	
Linea mugikorraren dei identifikatzailea	
ECHO txartela	
Roaming zerbitzua	
Internetera sartzeko zerbitzuak (GPRS/EDGE/UMTS/HSDPA/HSUPA/HSPA+...)	
Zerbitzu mugikor pertsonala (terminal eta linea berbera erabilera pertsonala izateko)	
FAX transmisio zerbitzua	
MMZak bidaltzeko zerbitzua	
Bideokonferentzia zerbitzua	
Zerbitzuak eta egokitzapenak	



Terminala/modem mugikorra ordeztea (mugikorren % 30a urtero)
SIM txartelaren birjalkipena (mugikorren % 30a urtero)
Zenbakien eramangarritasuna beste operadore batetik

II.1.4. Trafikoaren kosturako puntuen kalkulua. 10 puntu.

Taulak azpikategoriak islatzen ditu eta bakoitzari dagozkion puntuak.

Puntuak esleitzeko, trafikoaren ereduaren (II. Eranskia) arabera kalkulatu da, eta unitatearen prezioekin edo lizitatzailaren fakturazioaren segmentuekin ematen du kategoria bakoitzean hileko fakturazioaren zenbatekoa. ondokoa kontuan izanda.

- Nazioarteko deien hileko kostua kalkulatzeko, Europar Batasuneko nazio batean kokatuta dagoela destinoko zenbakia suposatuko dugu, demagun Frantzia (Mendebaldeko Europa). Guztia independentea da nazioarteko tarifa bereiztuak eskaintzetik, nazioarteko trafikoaren bolumena txikia delako eta orokorrean, gure inguruan dauzkagun herrialdeetara (Frantzia, Ingalaterra, Portugal, ...) bideratua.
- Sare adimendunerako deien hileko kostua kalkulatzeko, 902 lineatara egindako deiak baino ez dira hartuko kontuan, erabilienak direlako udalean, eskainitako sare adimendunerako tarifa ezberdinetatik kanpo.
- Roaming deien hileko kostua kalkulatzeko, suposatuko du deia egiten duen mugikorra EBko: Frantzia edo Mendebaldeko Europako nazio batean kokatuta dagoela. Guztia independentea da nazioarteko tarifa bereizitak eskaintzetik, nazioarteko trafikoaren bolumena txikia delako eta orokorrean, gure inguruan dauzkagun herrialdeetara (Frantzia, Ingalaterra, Portugal, ...) bideratua.
- MLZ eta MMZ mezuen diru-kopuruak kalkulatzeko, mezu bakoitzaren unitate zenbatekoak biderkatuko dira I. Eranskinen ereduaren azaldu denagatik, roaming.a kalkulatzeko EBko nazio batean (Frantzia) dagoela terminal mugikorra, mezuen ordukako tarifa bat baino gehiago eskainiko balitz, zenbatekorik handienekoari dagokion tarifa hartuko litzateke.
- GPRS / EDGE / UMTS / HSDPA / HSUPA / HSPA etab. bidezko datuen trafikoaren kostua kalkulatzeko, orrian eskatutako egitatea dela ulertzen da mugikor guztien fakturazio bakarra. Honetan sartuko litzateke Kilobytetan deskargatutako datuen bolumenaren araberrako faktura, berdin izanda zein teknologia edo terminal eredu erabili den. Beraz, I. ERANSKINaren trafiko ereduari lotutako fakturazio mota aurkitzeko, Kilobyteko unitate kostuagatik biderkatuko da ereduaren motako datuen bolumena. Beharrezkoa balitz, roaming-eko Kilobyten kostu ezberdina kontuan izango litzateke.
- Kasu guztietan, (deiak, datuak, mezuak), lizitatzailak tramuka egindako fakturazioa eskainiko balu eta ez unitateen prezioetan (mezuen kasua) oinarritutakoa, edota deia ezartzeari dagozkion kostuetan oinarritua eta denboraz tarifatua (deien



kasua), hileko kostu motaren kalkulua egiteko I. ERANSKINaren trafiko ereduari aplikagarria litzatekeen tramua bilatuko litzateke.

Atal edota azpiatal bakoitzari dagozkion hileko zenbateko motak kalkulatu eta gero, dirutza txikieneko lizitazaileari esleituko zaizkio punturik gehienak eta 0 puntu garestien eskaintzen duenari, beste lizitazaileek, egindako eskaintzaren arabera hartuko lituzkete puntuak.

Trafikoaren kostua: deiak, datuak eta mezuak	10,00
Trafikoaren kostua (telefono deiak)	
Finkoetatik:	
Finko propiora	
Mugikor propiora	
Tokiko finkora /metropolikora	
Probintzia barruko finkora	
Probintzia arteko finkora (EAE)	
Probintzia arteko finkora (ez EAE)	
Mugikor nazionalera	
Nazioartekora	
Adimendun sarera	
Mugikorretatik:	
Finko/Mugiko Propiora	
Finko nazionalera	
Mugikor nazionalera	
Adimendun sarera	
Nazioarteko finkora	
Nazioarteko mugikorrera	
Roaming-en sartzen diren deietara	
Roaming-en bidaltzen diren deietara	
Trafikoare kostua (GPRS/EDGE/UMTS/HSDPA/HSUPA/HSPA+... datuak)	
Konexio nazionala	
Konexioa roaming-en	
Trafikoaren kostua (MLZ/MMZ mezuak)	
MLZ	
Mugikor nazionala	
Nazioartekoa	
Premiuma	
Roaming-en	
MMZ	
Mugikor nazionala	
Nazioartekoa	
Premiuma	
Roaming-en	

II.2. Eskaini beharreko hobekuntzak. 25 puntu



II.2.1. Zuntza optikoa zabaltzea. Obra zibila eta kableak. 20 puntu

Orri honetako 3.5.2 atalean azaltzen den moduan, Bermeoko Udalarentzat interesgarria gertatuko litzateke zuntz optikoa zabaltzea bere dependentzia guztiak elkar komunikatzeko.

Horregatik, lizitatzailleak, V. Eranskinean biltzen diren planoak kontuan izanda, zuntz optikoa hedatzeko telefoniaren kanalizazioaren luzera finkatu beharko du.

Burututako kanalizazio gainean zuntz optiko metrorik gehien zabaltzen (kable jartze lana) duen lizitatzailleak 10 puntu hartuko ditu. Gainerakoek, eskainitako metroen arabera hartuko dituzte puntuak.

Halaber, V. Eranskinean agertzen diren planoekin batera telefonia metrorik gehien jarriko duela eskaintzen duen lizitatzailleak, 10 puntu jasoko ditu. Gainerakoek, eskainitako metroen arabera hartuko dituzte puntuak.

II.2.2 Telefonogunea gaurkotzea. 5 puntu.

Orri honetako 3.5.1. atalean ezarritakoa betez egin beharko du lizitatzailleak telefonogunea gaurkotzeko eskaintza.

Gaurkotze hori egiteak emango dizkio 5 puntuak.

